

FEDERIKO KRUTWIG SAGREDO.—*Jakintza-baitha* (Belatzen baratza saila). Haranburu-Editor, S. A. Donostia, 1982.

*Belatzen baratza* saileko bigarrena dugu hau. Sailez badu ikustekorik aurtengo *Egan* 1-2 zenbakiaren 131-135. orrialdeetan aipatzen genituen *Otsoaren bidea*, *Ortziren zaldiak*, *Garaziko oihanaren thauma* eta *Sua ez da hiltzen* tituludunekin, naiz eta lan hoiek elkarren artean lotura zuzenagoa eduki.

Liburu hontako kultur hitzak *Otsoaren bidea* deritzanari, eta ondokoetan, agertu zuen hiztegiñoak aurkitzen dira. Horregatik, irakurle, maiz behar duzu otsoaren ahora argibide bila. Hala ere, greko eta sumerio hizkuntzak badakizkitzu biderik erdi egina duzu entelegatze kontuan. Guk, ordea, grekera eta sumerieraz gehiegi kargaturik aurkitzen ditugu eleberriok eta hizkuntza horiek ez dakizkigunontzat irakurgaitzak dira.

Egilearen helburuetan elite literatura lantzearen gogoia dago, hizkuntzaren errekursoak kultura zaharretako literatur hizkuntzen baliapenetan aurkituz. Uste dut, hala dela Baina, bestalde, eleberrigintzaren bide berriak urratu nahi ditu Krutwignek. Hortarako erabili duen teoria «Polyphônia ta polyrrhythmia» (*Egan*, 1984, 1-2 zenb., 17-29 orr.) deritzan saioan aurkituko dugu. Horren arabera, polifoniazko musikaren arauz baliatzen da eta eleberriko pertsonaia bakoitzak bere idea, jite edo mentalitate mugatu bat erakusten du, orkestra batean bakoitzak bere soinugailu berezia duen bezala, eta agertzen den bakoitzean berari dagokion haritik jarraituko du. Izan ere, gizartean maizenik dugu pentsa-doinu berberarekin beti kanta berdinez aritu denik anitz.

Bere obrak, eleberriak, Mesopotaniatik sorkalderuntza mugitzen dira, Europako ifarra, Ekaldea eta Euskal Herriaren ingurua hartuz.

Guzi hori lantzeko irudimenik ez zaio falta eta fikzioari amain emanik doa hasiera beretik: «...Gardunaldeak bere

balore handiak zeduzkan, erraiten zuen Gordonek, eta geuk hok zaindu behar ditugu, eta zaindu behar ditugu, biziaren faltaz hil ez ditezen. Geuk typikoki gurea dena desarroilatu eta aberastu behar dugu, eta gure sustrai autentikoa konservatu». Horregatik: «Gordonek euskaraz ixtudiatu zuen, euskal ezagutzapenetan maixugo handia lortu bait zuen eta bere ezagupenak gardungoarari aplikatu zerauzkion. Campbelllek sumeraraz spezialitateak beretzakotu zituen. Bertze Khideetan Ines Forbes (Aines Horbaitz) nabarmentzen zen. Neskaitila hunek oso kultura hedatua ta handia zedukan, batez ere Orienteko hizkuntzetan eta Babilioneko Historian. Geroz Elizabeth Farquharson (Elizabel Har-Uharteko) sumerarazko spezialista zen. Haukiek bezala, lagundi huntan zegoen bertze khide guztiek huntaz gainera ekhai askotan ezagutzapen hedetuak zeduzkaten hizkuntzetan. Lagundi hunen khide guztiek laister euskaraz, sumeraraz eta garaikaraz ikasi zuten, eta batzuek ere Kaukasko hizkuntza batzu ere». Hor dira sustraiok, eta hortik aurrera lasai arituko da gertakizun eta gertakarien kontakontari.

Europako historiaz eta sineskeraz baliatzen da bere kontraera. Tarteka erdi profetiko, erdi poetiko esaldiz agertzen ditu sineskerak berak eskaintzen dizkiguten mezuak, eta era polifoniko hortan pertsonaia bakoitzari dagokion haria galzten badugu ere, eta inoiz zerbait nekatuarren ere, ez gaitu aspertuko.

Baina, gure ustez, grafia gure egunotara emateak errazagotuko zuen, irakurgarriago egingo zuen bere elitetasuna kendu gabe. Eta gauza bera esango genuke erabiltzen dituen hitz askogatik ere ideak erabiltzeko ez dela hain beharrezkoa beste kulturetako hitz abstraktoak beste gabe zakuratzuz, etxeko adierazi beharrez.